

A1
LH



Eusle Programa - Laburpen koadroa

1. BLOKEA: ELKAR EZAGUTZEN

Ekoizpenak / sortuko direnak:
Ahozko ekoizpenak: Nire aurkezpena

Gaiak Nortzuk gara?

Emozioak

Eskola eta gure gela

1. KAIXO ONGI
ETORRI:
Gelakideen
hormairudia eta
bideoa

2. NOLAKOAK
GARA?
Autoerretatu
kubista

3. NIRE ESKOLA
BERRIA
Gelako horma irudia
Ikastetxeko planoa

2. BLOKEA: NIRE BIDAIA

Ekoizpenak / sortuko direnak:
Bidaia kontaketa era digitalean. Maketa fisikoa
(nire etxea).
Ahozko deskribapena: etxea

Gaiak Jatorri- Bidaia

Auzoa

Nire Etxea/Familia

1. NIRE JAOTERRITIK
NIRE HERRI BERRIRA
Mapak/Google Earth
bidaia kontaketa
era digitalean

2. NIRE AUZUNE BERRIA:
GOAZEN AUZUNE
EZAGUTZEN
Auzunea, kaleak,
lanbideak, garraioak,
argibideak eman

3. GURE ETXE BERRIA
Nire etxeko gelak eta
nortzuk bizi diren
nirekin

3. BLOKEA: ERAKUSKETA

Ekoizpenak / sortuko direnak:
Erakusketa jaialdi fisikoa antolatuko da gela arrunteko
ikaskideentzat.
Ahozko aurkezpen erraza jatorrizko herriak eta
kulturak

Gaiak Nire herriko dantza
eta musika

Nire herriko
elikagaiak

Esperimentuak

1. BIRZIKLAMUSIKA
Musika berrak
birziklatuak egin

2. MUNDUKO
ELIKAGAIAK
Elkarrizketak eta
beste herriak
janariak ezagutzea

3. JANARIEKIN
ESPERIMENTUAK
Sukaldaritza,
erosketak,
dastamena,
prestatuak

4. BLOKEA: MAGIA EMANALDIA

Ekoizpenak / sortuko direnak:
Trukuak ikasi eta aukeratu. Entsaioak egin eta, azkenik
ekitaldia edo ikuskizuna burutuko da.

Gaiak Truku ezberdinak

Aurkezleak eta
magoak

Apainketa eta
dibulgazioa

1. MAGIA TRUKUAK
Magia trukuen
informazioa
biltzea, ezagutzea
eta ulertzea

2. MAGIA EGITEAN
IKASIKO DUGU
Magia egitean
elkarriketak
sortu, materiala
sortu

3. MAGIA
EMANALDIA
Kartelak egin eta
emanean
prestatu

ERRUTINAK

- Agurrak
- Ordutegia
- Egunaren banaketa
- Eguraldia
- Emozioak +
doluaren mapa
- Jolasak

Nire portfolioa

Errutinak

Portfolio Bideoak

**A1
DBH**



Eusle Programa - Laburpen koadroa

1. BLOKEA:

ELKAR EZAGUTZEN

Ekoizpenak / sortuko direnak:
Ahozko ekoizpenak Nire aurkezpena

Gaiak Nortzuk gara?

Emozioak

Eskola eta gure gela

ERRUTINAK

- Agurrak
- Ordutegia
- Egunaren banaketa
- Eguraldia
- Emozioak+ doluaren mapa
- Jolasak

2. BLOKEA:

NIRE BIDAIA

Ekoizpenak / sortuko direnak:
Bidaia kontaketa era digitalean. Maketa fisikoa (nire etxea).
Ahozko deskribapena: etxea

Gaiak Jatorri- Bidaia

Auzoa

Nire Etxea/Familia

3. BLOKEA:

ERAKUSKETA

Ekoizpenak/sortuko direnak :
Erakusketa jaialdi fisikoa antolatuko da gela arrunteko ikaskideentzat.
Ahozko aurkezpen erraza jatorrizko herrialde eta EH alderatuz...

Gaiak Nire herriko dantza eta musika

Nire herriko elikagaiak

Esperimentuak

4. BLOKEA:

MAGIA EMANALDIA

Ekoizpenak/sortuko direnak :
Trukak ikasi eta aukeratu. Entsaioak egin eta, azkenik erakusteko erakusketak burutuko da.

Gaiak Truku ezberdinak

Aurkezleak eta magoak

Apainketa eta dibulgazioa

Portfolioa + Bideoak

Errutinak

Nire portfolioa

4. BLOKEA: MAGIA EMANALDIA

Egoera: gure bizitzan azken bi urteotan bizi izan ditugun egoerak direla eta, momentu barregarriak, dibertigarriak, atseginak... behar ditugu. Ilusioarekin jolastuko gara denon arreta lortzeko. Hori dela eta, ikuskizun, ekitaldi ... bat antolatzea proposatzen da. Online, Youtube edo nahi dugun erara, magia saioak egingo dira.

Lehenengo, bikoteka antolatuta, magoak bihurtuko gara. Ekitaldi horretan parte hartuko dugu eta zer truku egin aukeratu behar dugu. Mago bezala gure izen propioa izango dugu eta hori ere erabaki beharko da Gure emanaldiaren programa eta izena erabaki ondoren, magia trukuak ikasi eta entsaioak egingo ditugu. Eta, azkenik ekitaldia edo ikuskizuna burutuko dugu.

A1.-

1. Ataza. Magia trukuak ezagutzea eta ulertzea
2. Ataza. Magia saiorako adierazpena ikastea: aurkezlea eta magoak
3. Ataza. Magia emanaldirako trukuen prestaketa, apainketa eta dibulgazioa

HELBURUA: Magia trukuak ulertzen, aurkezpenak egiten eta magia trukuak egiten ikasiko dugu aurrez aurre edo teknologiaren bidez magia emanaldi. Saio edo ikuskizun bat egiteko.	HIZKUNTZA FUNTZIOAK ETA EGITURAK Aurkezpenak egitea: agurrak: Kaixo, egunon, ongi etorri magia saiora Aurkezpena: Hona hemen ..., gaur zuokin ... magoak Proposamena egitea: Zer egingo dugu? Nik ... ezagutzen dut. Niri hau gustatzen zait! -Proposamena ukatzea: A1-Uff Ez zait gustatzen, Ez dut nahi. Hori ez. Ez, ez zait gustatzen Ez nago ados. Zaila/ roloia .. da A2. Ai ene! Zaila da! Ez dakit egiten!.Ez dakit...aspertu egingo dira.

	-Proposamena onartzea: ondo dago! Ideia ona! Ados. gustatzen zait! Primeran! Interesgarria da/ dibertigarria... Proposamena komunikatzea/zabaltzea: hauxe egingo dugu, .. eta ni ..gingo dugu. Guk ... egingo dugu, gure izenak ... izango dira, truku egingo dugu . (Bat) magoa izango da eta bestea laguntzailea. Iritzia ematea: Ez zait gustatzen, aspergarria da, zaila da, itxusia da, ez da dibertigarria, arrunta da... Flipagarria da, izen horrek ez du rimarik, ritmodun izena -Eginkizuna zehaztea: Orduan, ...gingo dugu. Bagoaz lanera! , bikainak... -Egingo dena adieraztea: txanponekin, zapiekin, kartekin, pelotekin..., egingo dugu -Ikuskizuna aurkeztea: <i>Agurra/sarrera: Egunon guztioi!</i> <i>Kaixo guztioi!</i> <i>Hona hemen gaurko ekitadia</i> <i>Gurekin....</i> <i>Munduko... hoberena</i> <i>Hemen daukagu</i> <i>Atalen progresioa, denbora lokailuak: Orain, lehenego, gero, ondoren...</i> <i>Ekintzak adieraztea aginte:moduan hartu, jarri, nahasi..</i> <i>Geroaldia: egingo duzu, hartuko duzu, nasiko dituzu...</i> <i>A2rako: nor-nori-nork: emando didazu, utziko didazu, lagunduko didazu</i> <i>Beharra adieraztea: ... egiteko behar dut.</i> <i>Laguntza eskatzea: laguntzailerik? Lagunduko didazu? laguntzaile bat mesedez</i> <i>Keinuen bidez komunikatzea: eskuen eta gorputzaren mugimendua</i> <i>Hizkuntzarekin jolastea: aho-korapiloak, esaerak...</i>
--	---

1. jarduera multzoa: SEKUENTZIA DIDAKTIKOA AURKEZTU ETA HELBURUAK ZEHAZTU


JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
* Saio guztietan, hasieran. • Agurrak: Kaixo!, egun on! / arratsalde on! • Errutinak:... • Erantzun fisiko osoa • Aginteak, hiztegia ikasteko Errutinak egiteko erak: bikoteka bata besteari galderak eginez errutinak bete. Denak elkarrekin, bata besteari galderak egin eta errutinak bete. Aurrezagutzak/ motibazioa Lehenengo bideoa ikusi. Motibazio gisa. Emakumeak ere magoak izan daitezke.	1. bideoa: Ahots barik ikusteko neskaren bideoa. Amelie Tik Tok	Zer ikusi dugu? Zer egin du? Nola deitzen da pertsona hori? -Gustatu zaizue? Trukoren bat ezagutzen duzue? -Nik bai -Nik ez Gustatu zaizue? Bai/Ez Gustatu zait Ez zait gustatu Zein da truko politena/harrigarriena? -Zaila/erreza da.	Arreta mantentzen du Bere gorputzak arreta duela adierazten du Interesa adierazten du gaian
Zer egingo dugu? Eta zer ikasiko dugu?	Planifikazioa word en planifikazioa	Zer egingo dugu? Zer pentsatzen duzue egingo dugula?	Hipotesia adierazten du behar duen laguntzarekin saiatzen da euskaraz adierazten

Bideoa ikusi ondoren, ea asmatzen duten egingo eta ikasiko dutena. Ahoz euren hipotesiak esango dituzte. Denon artean magia egiten ikasiko dute eta emanaldia egingo dute. Planifikazioa egingo dugu denon artean. Nonbaiten kokatuko dugu eta egunero zer egin dugun eta zer falta zaigun esango dugu. Magia saioa egingo dugu. Magoak bihurtuko gara. Baina lehenengo, magia trukuak ikasiko ditugu. Gero, bikoteak osatuko ditugu. Magia bikoteka egingo dugu. Magoen izenak aukeratuko ditugu Hitz magikoak aukeratuko ditugu Trukuak egiteko materiala prestatuko dugu Ensaioak egingo ditugu Informazioa zabalduko dugu Emanaldia egingo dugu Balorazioa egingo dugu. Zer ikasiko dugu? Magia trukuak egiten		<i>...egingo dugula uste dut</i> <i>Uste dut magia ikasiko dugula.</i> <i>Magia egingo dugu,, uste dut</i> <i>Uste dut magia ikasiko dugula.</i> Planifikazioa esan: <i>Magia saioa egingo dugu. Magoak bihurtuko gara.</i> <i>Baina lehenengo magia trukuak ikasiko ditugu.</i> <i>Gero bikoteak osatuko ditugu.</i> <i>Magia bikoteka egingo dugu</i> <i>Magoen izenak aukeratuko ditugu</i> <i>Trukuak egiteko materiala prestatuko dugu</i> <i>Ensaioak egingo ditugu</i> <i>informazioa zabalduko dugu</i> <i>Emanaldia egingo dugu</i> <i>Balorazioa egingo dugu.</i> <i>Gaur— egingo dugu.</i> <i>Atzo ...egin genuen</i> <i>... egitea falta da/ dira</i> <i>Niri ... falta zait</i>	Laguntza eskatzen du Bere iritzia adierazten saiatzen da. Parte hartzeko gogoia adierazten du Euskarri ezberdinak erabiltzen ditu komunikatzeko Oinarrizko hitzak erabiltzen ditu: magia truku mago
---	--	--	--

Ahoz esaten Zenbakekin jolasten Dadoekin eta kartekin jolasten Informazioa txartela idazten Hitz magikoak asmatzen Informazioa txartela idazten			
Magia eta sentimenduak Saioa ikusten zer sentimendu sortarazten digu adierazi. Mundu magikoarekin lotzen da. Aurpegiak begiratu ea zer adierazten duten. Gure errealitatetik ihes egiteko aukera A2rako? Teknologiarekin lotuta: bideojokuak eta abatarak Eurek nor diren, nola sentitzen diren...	Magialdia Emozioen txartelak erabili Edo irudiak	Zer sentitzen duzu? ilusioa, poztasuna Egia da? Ametsetako mundua da Gustura nago Ikusioa da dibertigarria da/ aspergarria da Ez da egia Bideo-jokuan ...naiz. Nire abatarra... da. Ni ... Pozik, indartsu, alai... sentitzen naiz. Jokuan ... egiten dut. HOrri ere, magia da Irudimena, da.	Sentitzen duena adierazten saiatzen da: pozik gustatzen zait gustura nago
2. jarduera multzoa: AZKEN EKOIZPENAREN EREDUA AURKEZTU			

JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Bideoak ikusi.. Aukeratu bi ikusteko. Gero, ulermena lantzeko aukeratu bat . Zertan erreparatu: Aurkezpena, janzkera, keinuen erabilera, tonua, eta esaten dutena. Entzun Basurtokoa 2 aldiz. Lehena zertaz doan ezagutzeko eta besstea bere ulermena ziurtatzeko. Hitz magikoak Mugimendu magikoak/eskuekin... Magoen apaingarria DBHko bideoa: Aurkezpenean, gelditu: Zer dira? Nor dira?	Basurto eskola: 12:00tik aurrera Basuberri Hirutxulo Zaldia gela DBH Jokin eta Aitor Kirikarentxokoa Zenbakia asmatzen komikia ahotsarekin	Hau egingo dugu. gustatzen zaizue? Nor da aurkezlea? Trukuak ezagutzen dituzue? Mugimendu magikoa egiten du (eskua gora, eskua mugitu...) ...hitz magikoa esaten du hitz magikoa esaten du kapela/ makila du zapia du Norentzat magia? denontzat, txikientzat... Nola egin dute? aurrez-aurre, grabatu, youtuben magia youtuben egiten ditu magia gelan egiten dute grabatu dute	Zentru orokorra ulertu du Arretaz entzuten dute Gogoz ikusten dute Laguntzarekin aurkezlea eta magoa bereizten ditu

Zer egingo dute? Zer truku egingo dute? Gero, bideoa ikusi. Ondoren, 2 aldiz entzun eta bigarrenetan erreparatu: esku mugimenduak/ mugimendu magikoak baliabideak			
3. jarduera multzoa: EREDUA LANTZEN: aurkezpena, zenbatekoa, aho-korapiloak...			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Entzumena: Aurkezpena eta magoen aurkezpena. Aurkezleek esaten eta egiten dutena ikusiko da. Atal batetik bestera pasatzeko esaldiak Magoen aurkezpena: Nola dauden jantzita Hasierako esaldia	Hasieran aurkezleak Basuberri 12:00tik aurrera, magia DBH Jokin eta Aitor Magia ikuskizuna Magia Ikuskizuna I	Zer esaten du? Aurkezleak: -Kaixo ongi etorri...ko teleberrira. -Orain... -Hau izanda dana.Eskerrik asko... -Aupa ..go zikloko umeei! Eskuarekin adierazten du. -Kaixo... magia egingo dute. Magoak: Agurra: Kaixo, ...naiz eta magia trukua egingo dut. Magia trukua egiteko behar dut ... Etorri zu!	Laguntzarekin aurkezpena egiten du. Aho-korapiloak ondo ahoskatzen ditu. Irakurgaietan izenak identzikatzen ditu eta esaten ditu.

Zer hitz magikoak erabiltzen duten. Jaso txartel batean informazioa. Gorputza, keinuen erabileran ere erreparatu. Irakurketa Egitaraua irakurri eta magoen izenak atera. Noiz izango da? Zenbat egun ,magia ikusten? Emakumerik dago? Erreparatu irudian, zure ustez zer truku mota egingo dute? Trukuen arabera hizkuntza egitura bat edo bestea landuko dira: Hona hemen proposamen batzuk. Hemen, hor, han	Entzun-ikusi-datuak Entzumenaren-ulermena Irakurketa:  Erandio-magikoa	Eta hau izanda dena. Agur!	Izenak eta noiz bereizten ditu eta irakurgaietan identifikatzen ditu. Laguntzarekin ahoz adierazten ditu. (irakurketa)
---	--	-----------------------------------	---

...egingo dut (A2 Egingo dizuet, horretarako bolondresa behar dut. Esango didazu) Non dago karta? Geroaldia Txalo bero bat	Egitaraua		
A2rako Nor-nori-nor : <i>Zuk niri</i> <i>Nik zuri formak landu.</i> <i>Emango didazu,</i> <i>Ekarriko didazu</i> <i>Utziko didazu...</i> Egiturak erantzun fisikoaren bidez landuko dira. Binaka jarrita bata besteari aginteak esango eta egingo dute eta erantzungo du.	Irudiak, egoerak non bikoteak daude eta eskatu, eman, utzi... zerbait erabili daiteke.	Emango didazu'... Bai, emango dizut Tori, Utziko didazu liburua? Hartuko didazu ...? Moztuko didazu...? Bai, moztuko dizut Ez , ez dut nahi	

<i>Zabaldu egitura horren lanketa eguneroko egoeretan:</i> <i>Egoerak antzeztu</i> <i>Telefono zenbakia eskatzea,</i> <i>Apunteak edo libururen bat,</i> <i>dirua, ...eskatzea.</i> <i>Irudietako egoerak antzeztu.</i>			
Matemagia egiteko Zenbateko? egitura landu. Ahoz gelan bertan dauden elementuekin, gero fitxa egin daiteke.	zenbateko-matematika		Kontzeptua ulertzen du. Laguntzarekin erabiltzen du.
Zenbakiak errepasatu edo landu. Zenbakiekin magia egiteko zenbakiak ezagutu behar dituzte eta eragiketen izenak	liveworsksheets		
DBHn Hemen, hor, han errepasatu	Hemen, hor, han fitxak		Elementuak espazioan kokatzen ditu, laguntzarekin.

Egoera, irudi batean objektuak eta pertsonak espazioan kokatu eta idatziz edo ahoz adierazi	Irudiak, harremanetako hizkuntza karpetakoak		
Nola deituko gara? Magoen izenak aukeratu			
Emakume magak ezagutu. Gaur egungo pertsonak eta fikziozkoak. Testoa irakurri eta ezagunak diren ala ez esan. Zer egiten duten, identifikatu. Irudietan ageri da zer truku mota egiten duten.	Emakume-magak	karta trukuak egiten ditut. Nik hermione ezagutzen dut. Niri ...gustatzen zait. Sorginak magia egiten dute.	Emakumeen paperaz ohartzen da.
Magoen izenak esan eta zerrenda jaso. Mentalista eta eskapistaren esanahia girotzeko bideoa jarri: bebesse escapistas Beste bideoak ikusi kontzeptuak ulertzeko. mentalista eta matemagiako trukuak balio dute	Bebes-escapistas eskapista mentalista	Zer egiten du haurrak? Ihes egin, atera, joan... Zer egiten du magoak? ... ik atera, ihes egin Mago hau mentalista Magoa mentalista da Magoa eskapista da.	KOntzeptua ulertzen du.

Irakurketa: Txartelak irakurri eta identifikatu magoen izenak. Idatzi edo jaso magoen izenak. Irakurketa sakona: XVII MAGIAREN TOPAKETAK PROGRAMAn Identifikatu: magoen izenak Eguna eta ordutegia Hlzkuntza	Programak Irakurketa sakona	Euskaraz da Magia dago Izengurua Zenbat saio egin dira? Arratsaldean zer mago dago? Magarik al dago? Gala emakume magikoan nor dago?	Egitarauen atalak identifikatzen eta bereizten ditu. Emakumeren bat identifikatzen du.
Izenak asmatzen. DADO HANDI BAT PAPEREZ EGIN Bikoteka jolastuko dute. Magoak izateko izena aukeratu behar dute. Nola deituko gara? Dado jolasaren bidez izenak asmatuko dituzte. Aditza ni eta gu ere errepasatuko dute.	Izenak-asmutzen	Nire izena Zure izena erabiliko dugu Gure silabekin asmatuko dugu Niri ...gustatzen zait ...magoak gara gure izena erabiliko dugu gu ... eta ... izango gara. Gu ... gara. Proposamena: gure proposamena hau da: ...deituko gara	Bere izena edo euren izena esaten du/dute

5 minututan jolastu egiturak errepasatzeko. Ondoren, gustatu zaien izena aukeratuko dute eta proposamen moduan adieraziko dute besteei behar den egitura erabilita.		Gure izenada	
Ekintza eta informazio osagarria Euskal Herriko magak edo sorkinetaz hitz egin. Euskal mitologiako pertsonaiak landu DBH Maga eta sorgina hitzetaz hitz egin. Emakumearen papera	Euskal mitologia		Interesa adierazten du.
Abestiak girotzeko Letra ikasi eta abestu Koreografia egin	Iluzio izpi bat	Abestia gustatu zaizue? Gustua adierazi: bai, ez	Parte hartu du entzumenean edota abestean

Hitz magikoak eta mugimendu magikoak asmatuko ditugu			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Trukuak egiteko hitz-magikoak garrantzitsuak dira. Ikasleek ezagutzen dituzten hitz magikoen zerrenda egingo dute. Euren hizkuntza erabiliko dute informazioa zehazteko eta osatzeko. Esan eta gorputzaren bidez adieraziko dute behar diren mugimendu magikoak imitatuz. Ahoz gora esaten joango dira eta, jasota eratuko dira. Aho-korapiloak eta onomatopeiak lantzeko aukera izango dugu.	Aho-korapiloak Aho-korapiloak2 Hitz-magikoak	<i>Zer hitz- magikoak ezagutzen ditugu?</i> <i>Magoek zer esaten dute?</i> <i>Harri Potterrek zer hitz erabiltzen ditu?</i> <i>Nik... erabiliko dut</i> <i>Nik ... esango dut.</i> <i>Guk ... esango dugu.</i>	Pare hartzen du. Hitzak errepikatzen ditu. Gorputza saiatzen da erabiltzen

Irakurketa: Aho korapilo batzuk ahoz gora irakurri . Buruz ikasi. Jolastu ea nork egiten duen trabatu barik. Trabatu hitza landu edo bere esanahia ulertarazi. Irakurketa ariketa ulermenari lotua landu aukeratutako batzuekin	Irakurri-ahokorapiloak	Aho korapiloa da. Mihina trabatzen da Zaila da Poliki irakurri Ahoa ondo ireki eta poliki irakurri Ondo ahoskatu <i>Zaila da!</i> <i>Ez zait ateratzen!</i> <i>Trabatzen zait!</i>	Ondo ahoskatzen du. Gogoz parte hartzen du
4. jarduera multzoa: MAGIA trukuak informazioa			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Irakurketa. Magia trikimailuak irakurtzeko eman.. Irakurri eta euren artean egin. Bideoa ikusi eta nola egin trukua informazioa jaso. Zer behar dut eta nola egin	magia-irakurri-egin Kirikarentxokoa		Irudiak interpretatzen ditu. Pausuak jarraitzen ditu Pausuak laguntzarekin esaten ditu.

	Gasteleraz daude, euskaraz hurrengo sekuentzian ageri dira. Matemagia Dadoekin trukuak Karta trukuak		
Galdetu ea trukoren bat ezagutzen duten. Aukera eman dakitena egiteko		<i>Nik bai</i> <i>Hau (seinalatzen edo egiten du)</i> <i>Nik hau dakit</i>	Parte hartzen du Saiatu da euskaraz zerbait esaten
5. jarduera multzoa: Ebaluazioa eta koebaluazioa			
Elkar zuzentzen dira txantiloia arabera	Koebaluaziorako txantiloia		Unitatearen autoebaluazioa
Prozesua baloratuko dute. Ea atal guztiak bete dituzten. Batek irakurri eta besteak ahoz egiaztatu.	planifikazio		Planifikazioan zer egin dute, erraza ala zaila eta zer gustoko zehaztuko dute.
Autoebaluazioa Ebaluazioa	Portfolioan ebidentziak jaso.		

--	--	--	--

2 . SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: MAGIA EGITEN IKASIKO DUGU	
HELBURUA: Bikoteka zer egingo duten erabakitzea eta behar duten materiala prestatzea. Erabakia adieraztea, elkarriketa bideratu baten bidez. Instrukzio testua ulertzea eta interpretatzea.	HIZKUNTZA FUNTZIOAK ETA EGITURAK Galdera egitea: Aizu, ... proposamenik?Ideiarik? Baduzu proposemenik? Proposamenen bat?Ideiaren bat? Zer truku egingo dugu? -Proposamena egitea:: ...egiten badugu? Nik ... ezagutzen dut. Niri hau gustatzen zait! -Proposamena ukatzea:. Ai ene! Zaila da! Ez dakit egiten! Niri ez zait gustatzen.Ez dakit...aspertu egingo dira. -Proposamena onartzea: ondo dago! Ideia ona! Ados. gustatzen zait! Primeran! Interesgarria da/ dibertigarria...

Ataza: Magia trukuak ikasi eta egiteko behar dituzten baliabideak sortu.

Testuaren egitura	Azken ekoizpenaren eredua
IKASLEAREN AZKEN EKOIZPENAREN EREDUA: • Elkarizketa: • -Galdera egin: zer egingo dugu? (kartak, zenbakiak...)egingo dugu/ditugu? • Erantzuna: Bai/ Ez Ez zait gustatzen/ Ados/ Proposamena egitea: Eta, egiten badugu?	Egingo/ erabaki dutena esan Gu ... magoak gara/ izango gara ... magia trukua egingo dugu. ... trukuak egingo ditugu. Nik ... trukua egingo dut eta - k magia trukua Magia egiteko ... behar dugu: (materialen zerrenda) DBH Proposamena adieraztea: -Hau gure proposamena da. Hau pentsatu dugu egitea. -Izena :gure izena izango da. ...k izango gara.k gara. Magia trikimailu hauek proposatzen ditugu:izango da aurkezlea/laguntzailea etan ni magoa.Biok egingo dugu magia.

1. jarduera multzoa: SEKUENTZIA DIDAKTIKOA AURKEZTU planifikazioa egin

JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Badakit zer egingo dugun. Orain, atal honetako planifikazioa egingo dugu denon artean. Gure planifikazioa: Aukeratu trukuak Irakurri eta ikasi Materiala prestatu Entseguak egin	Planifikazioa	Hau egingo dugu: Lehenengo trukuak aukeratu Gero, irakurri eta ikasi Azkenean materiala prestatuko dugu.	Jasotzen du planifikazioa Laguntzarekin esaten saiatzen da
2. jarduera multzoa: Trukuak aukeratu eta materiala prestatu			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Elkarrizketa bideratu irakasleekin. Esketsak antzeztu behar dituzte. elkarrizketa barneratzeko Karta jokoaren bidez elkarrizketan trebatuko dira.	Elkarrizketa sortzen	GALDERAK hasiera -Zer egingo dugu? -Proposamenik? Baduzu proposamenik? Erantzunak: Ez dakit Zuk nahi duzuna	Laguntzarekin galdera erantzunan parte hartzen du

		Karta trukua Dado trukua Zenbakiak asmatu PROPOSAMENA EGIN Eta KARTA DADO TRUKUA EGITEN BADUGU? KARTA ZENBAKI ... TRUKUA NAHI DUZU? Onarpena: Bai, gustatzen zait Ados nago Konforme Interesgarria da/ dibertigarria... Ez onartzea: Ez, ez zait gustatzen Ez dut nahi Ez nago ados Zaila/ aspergarria .. da	
--	--	--	--

Gure itzitzia adierazten ariketak. Nolakoak dira egiten ditugun gauzak? -garri atzizkia landu	Nolakoak dira erreparasatu baina -garri landu	Liburua interesgarria aspergarria deibertigarria da luzea motza... da	kontzeptua ulertzen du
Irakurketa Irakaslea izan daiteke irakurketaren eredua, modelajerako. Gela bakarrean A2koak edo ondo irakurtzen dutenak eredu moduan erabili daitezke. Bikoteka irakurriko dute. ahoz gorako irakurketa egingo da, doinuan eta abiaduran erreparatuta. Azkenik, trukuaren testua bikotearen aurrean errepikatuko dute. Keinuak, gorputzaren mugimendua landuko da. Aulkien trukua bikoteka egiteko da. Irakurri eta bikote bakoitzak egingo du.	Baliabideak Liburuak Dadoekin trukua Zotzekin jolasean buruari-eragin erantzunak	Esamoldeak: -Pentsatu lasai Ea asmatzen duzun! Ez da erraza Eutsi gogor! Zuk ahal duzu! Berehala asmatuko duzu! Jarraitu horrela! Isiltasuna mesedez!	Jarraibideak jarraitzen ditu. Aulkien trukuan parte hartzen du. Egiturak ondo esaten ditu Keinuak erabiltzen ditu (gorputzaren mugimendua)

Aulki atzeko esaldiak, aldatu daitezke eta landu nahi denaren arabera egokitu. Baina testuinguruari lotuak izan behar dira. animoak emateko, ez dela erraza, behar ahal duela.. Esamolde egokiak aukeratu Horko trukoren bat aukeratuko dute?			
Bideoa ikusi 7:55tik aurrera. Truku ezberdinak eta nola egin ikusi daiteke. Truku bat aukeratu eta behar den materiala idatziko dute. Zer behar da? Euskarazko bideoak ikusi eta behar duten materiala idatziko dute. Erantzun fisikoa erabili ekintzak errepasatzeko. Gaian erabiliko den hiztegia jaso koadernoan edo bingo jolasak prestatu erabiltzeko. Koadernoan euren ama hizkuntzan ere idatzita jaso.	<u>Ilusioak</u> <u>Tor magoa</u> <u>Tor magoa artista</u> <u>Tor magoa desagertzen den zapia</u> <u>Magia ikuskizuna</u> <u>Magia ikuskizuna 1</u> Ekintzak errepasatu <u>Magia telebistan</u>	Zer behar da?: Trukua egiteko ura, txanpoia, bi pajita... behar dira. Lehenengo moztu, margotu, sartu... Gero...	LAguntzarekin zer truku esaten du Saiatzen da, koadernoan ez erabiltzen

Ilusio optikoekin jolastu	Ilusio optikoak		Parte hartzen du Interesa adierazten du
Gure gorputzarekin komunikatzen gara Gorputz mugimenduak adierazten duena identifikatuko dute: 2. bideoan, behean zer ikusten dugu. Nola dago gorputza, zer pentsatzen dugu? Goian, pentsatzen du... Gelditu eta aztertu haurra eta tximeletaren eszenak. gorputza eta sentitzen duena berdina dira. Gorputzak zer adierazten du? Ondorio bezala, gorputzaren garrantzia komunikazioan	Hitzik gabeko komunikazioa Itxura ala errealitatea	Behean zer ikusten dugu? gizona oinez dabil burua mugitzen du serio dago begiak mugitzen ditu goutza, besoak ez ditu mugitzen Goian, zer pentsatzen du? pozik dago,, korrika dabil... Umea eta tximeletako eszenan: gorputza mugitzen du eta pozik dago Eszena bat pozik dago korrika dabil	Arreta adierazten du
Materiala prestatu			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak

Bikote bakoitzak aukeratutako trukua idatziko du.  Material: un drap una moneda Una goma de sabell Passos: Fazer desaparecer una moneda Primer amaga la goma de sabell en una ma. Despres agafa el drap i posa la moneda al mig de drap. Quan no et mirin enganxa la moneda al drap amb la goma Per últim meu el mesclat La moneda no sortirà perquè està enganxada Egitura errepasatu: Zer behar dut? Materialak Nola egin: Lehenengo, gero, ondoren...	koaderno	truku hau egingo dut/dugu karten, txanponaren... trukua egingo dut/dugu zenbakia asmatuko dut Aginteak: hartu papera eta idatzi. Gero, prestatu, kokatu, itsatsi Lehehengo aulkia prestatu behar da.	
Gure magia saioaren planifikazioa idatziko dugu	Saioaren-planifikazioa		Planifikazioa idazten du

Bikoteka, euren saioaren planifikazioa idatziko dute. Nola deituko diren, hitz magikoak, zer truku egingo duten eta zer esango duten.			
3 . SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: ILUSIO OPTIKOAK (DBH)			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA
ikerketa-prozesuari ekin: ikasleak materiala biltzen hasi , eta aldez aurreko ezagupenen analisitik abiatuta (ZER DAKIGU) antolatzen hasi behar dira, guztien artean erlazionatuz (ZER JAKIN NAHI DUGU). Azkenik, landutako alderdiak jaso ziren, karpeta bat sortuz (ZER IKUSI DUGU). Jarraitutako dugun prozesua: • ikasle bakoitzak, astebetez, landu nahiko lukeen ilusio optikoa bat pentsatu. Ondoren, boto bidez aukeratu ditugu jende gehienari gustatzen zitzaizkion laurak (denek eman zezaketen botoa interesgarrienak iruditzen zitzaizkien galderei).	ilusio optikoak Magia eta ilusioa 6:25 minututik aurrera, motibazio moduan. Ilusio txikiak Abestia Ilusioa izpi bat	Niri hau gustatzen zait Nik hau egingo dut Nik ... ikusten dut Uste dut ... dela Zaila da Ez da erraza	Proposamena egiten du Bere gustua esaten du

Hautaketa-prozesua amaitzeko, gai horri buruz landu daitezkeen gauzen azalpen txiki bat egin dugu, eta hortik aurrera bozketa olinpiko bat egin dugu (bozketak egiten dira eta gutxien aukeratutako proposamenak ezabatzen dira, harik eta bat gehiengoarekin ateratzen den arte). Motibazio moduan, bideoa ikusi Magia eta ilusioa. 6:25 minututik aurrera			
• Eredua aurkeztu eta bat aukeratu. • Ilusio optiko bat egin • Idatzi hori egiteko prozedura • Aukeratu hitz magikoak • Pentsa ezazu zer ondorio izango dituen: ikuslea mareatu egingo da?	Ilusio optikoa Ilusio optikoa egin: Marraztu Marraztu II	Benetakoa edo fikziozkoa da? Benetakoa da Fikziozkoa da ZerEK liluratu zaitu? HONEK liluratu nau	

IRAKASLEAK/ A2ko ikasleren bat?

Dena prest dago hasteko.

Ikasleek lan-txostena egin dute, eta orain bai, iritsi da garaia eta aurkezpena egingo dugu ikasgeletan/ antzokian!!

Zalantzarik eta ilusioz betetako astea izan da.

(Aurreko sarreretan azaldu dugun moduan, argi daukagu sekuentzia eta azken produktua zer den. Ikasleek magiarekin zerikusia duten hainbat alderdiri buruz egin duten lan pertsonaletik abiatzea nahi dugu: zientziarekin esperimendu bat, enigma bat, trikimailu bat, ilusio optiko bat, hau da, ikasle bakoitzak alderdi bakoitzari buruzko informazioa bilatu beharko du, eta hainbat arrazoiengatik gustuko duen edo interesatzen zaion bat aukeratuko du. Hurrengo urratsa taldekideei aurkeztea izango da eta, elkarrekin, bat aukeratzea. Ados jarri beharko dira. Eta ikasgelako apainketa aukeratu beharko dute azkenean. Jarduera guztien baturak ikasgelako azken produktua egingo du.

Proiektuan zehar, guk hainbat aurkezpen-saio eskainiko dizkizuegu: zientzia ikuskizun bat, zenbaki matematikoak, ilusio optikoak, etab.)

3 . SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: MAGIA EMANALDIA antolatu

HELBURUA:

Talde moduan, emanaldiaren zabalkundea eta prestaketa antolatu, ereduak landuz, erabakiak hartuz eta aurkezleak eta magoak erabakiz ilusioz beteriko aurkezpena egiteko.

Egoera komunikatiboa: bi lagunek, MAGIA emanaldi batean, MAGOz mozarrotuta zergatik doazen azaltzen dute.

HIZKUNTZA FUNTZIOAK ETA EGITURAK

-Kontatu zergatik jantzi den horrela (mago bezala); arroparen izen guztiak ezagututa izan behar ditu: tixkera, oihala, makila.... ikasle horrek azal dezake jantziaren atal bat non erosi duen, noiz, etab. (aurretik ikasitakoaren birpasa)

-Norentzat den: denontzat, eskolakoentzat, txikiagoentzat

-Nola egingo dugu? Aurrez aurre, era digitalez, youtuberren bidez

-Kortesiak formulak: Arratsaldeak, kaixo guztioi, Eskerrik asko etortzeagatik...

Informazio-funtzioa erabipena: pertsona ezberdinei zuzendu eta magia ezberdinak deskribatzea

- Nor da MAGOA? Nola du izena? Zertaz ariko zara? Non dago?

- Zertaz zoaz mozarrotuta? - Oso ederra zaude... - Niri gustatzen zait...

- Ikusi duzu...

-Harrapatu duzu trukoa?

-Berrir egingo dut? errepikatzea nahi duzue?

-Kaka, gaizki irten da! berriz errepikatuko dut...

- Hitz magikoak errimarekin esaldi moduan

Emanaldirako:

-Mahaia, izara, oihala... behar dugu mahaia estaltzeko...

- Beharrezko materialak prestatuta izan behar dituzte aurretik...

- Azaldu nola egingo duen bere magia (aurreko jarduerak egingo behar dira)

- Azaldu emanaldi hau nola ospatuko den, beste zerbait gehitu duten....

Ahal izanez gero, interesgarria litzateke magiarekin zerikusia duen ekitaldiren batera joan.

Testuaren egitura	Azken ekoizpenaren eredua
IKASLEAREN AZKEN EKOIZPENAREN EREDUA: Aukeratutako magiaren arabera ausizko esaldi batzuk: • Elkarizketa: (magiaren arabera aurretik sortutakoak) hau egingo dut, dekrribatu egoera... adb. karta trukoa bada; • aukeratu bat... • sartu hemen... • ez dut begiratuko... • nahi duzun lekuan utzi.... • (as, pika, trebol, erronboa...) zenbakiak... • erdibitu... • bi multzotan jarri... • hau da zure karta?.... • gustatu zaizu trukua? bai/ez.... • errepikatuko dut?	Egingo/ erabaki dutena esan Kaixo Eusle gelako magoak gara eta zuei magia emanaldi bat ematera gatoz. Ni ... magoa naiz eta ... magia trukua egingo dut. ... adb. karta trukoa bada; Nik karta trukua egingo dizuet , baina horretarako bolondres bat behar dut. Zatoz ona... aukeratu baraja honetatik karta bat.... ondo aukeratu duzu? seguru? erakutsi besteei, baina nik ezin dut ikusi, eh!, lasai ez dut begiratuko... horrela bada, sartu zuk aukeratutako karta beste karta hauen artean eta nik jakingo dut zein den zure karta. tatatxan, eta hau da zure karta? zuzena da? erakutsi bestei gustatu zaizue nire trukoa? errepikatuko dut?
Testuaren egitura	Ikaslearen ahozko adierazpena

Zer esaten du? Aurkezleak: -Kaixo ongi etorri-...ko teleberrira. -Orain... -Hau izan da dena.Eskerrik asko... -Aupa ..go zikloko umeei! Eskuarekin adierazten du. -Kaixo... magia egingo dute. Magoak: Agurra: Kaixo, ...naiz eta magia trukua egingo dut. Magia trukua egiteko behar dut ... Etorri zu! Eta hau izan da dena. Agur! DBHko bideoan (A2) Hemen, hor, han Emango didazu! -Egingo dizuet!	Aurkezlea: <i>Agurra/sarrera: Egunon guztioi!</i> <i>Kaixo guztioi!</i> <i>Hona hemen gaurko ekitadia</i> Kaixo Eusle gelako magoak gara eta zuei magia emanaldi bat ematera gatoz. <i>Gurekin....</i> <i>Munduko... hoberena</i> <i>Hemen daukagu</i> <i>Ekitaldia:</i> <i>Lehenengo...</i> <i>Gero...</i> <i>Ondoren...</i> <i>Eta, azkenik...</i> <i>Txalo bero bat.</i> <i>Amaiera:</i> <i>Gustatu zaizue?</i> <i>Amaitu da Saioa</i> <i>Eskerrik asko denoi!</i> Magoa: -Agurra: Ni ... magoa naiz eta ... magia trukua egingo dut. ... Zer egingo duen: karta jokua, Truku batzuk	
---	---	--

	<i>Soka jokua</i> <i>Zenbaki jokua</i> <i>Dado jokua ... egingo dizuet.</i> <i>Laguntzaile/persona/bolondresa behar dut.</i> <i>Nork nahi du? Aizu... zu.</i> <i>-Etorri hona.</i> <i>-Hartu, aukeratu, jarri, idatzi...</i> <i>-Hitz magikoak:</i> Matemagoa: -Laguntzaile bat behar dut. Aizu, atera/ nahi duzu? -Zuk pentsatzen duzuna asmatuko dut. -Zure zenbakia asmatuko dut. Zure burmuina irakurriko dut. -Pentsatu zenbaki bat. ..zifrako zenbakia. Zenbakia batu Alderantziz idatzi Biderkatu zenbakia Egin kenketa Batu zifrak -Asmatu dut? -Hau da zenbakia	
--	---	--

1 jarduera multzoa: EMANALDIRAKO planifikazioa egin

JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
• Emanaldia aurretik prestatu. Antzeztu eta entseguak egin. Doinua, ahotsa, keinuak... • Beharrezko materialak sortu/egin. • Jantziak bilatu, egin edo erosi. • Emanaldia egin behar den lekua ondo aztertuta izan Emanaldi bat euskaraz ikusiko dugu,	• Egindako eredu-trukoa ondo antolatuta izan. • Fondoan tentsiozko musika jarri • Mahaia oihal handi batekin estali • Egindako edo erositako jantziak /materialak eskuragarri izan Magia erakustaldia	Trukoaren arabera ekoiztutako hizkuntza (dado, karta, pilota...) Pentsatu berezi egingo duten hitz magikoak	Planifikazioan parte hartzen du
Musika aukeratu Bikote bakoitzak gustoko musika adieraziko du eta proposamena doinuarekin ekarriko du.	Musika ezberdinak magiarako	Zer musika da? ... deitzen da Niri gustatzen zait Niri musika hau gustatzen zait Hori aspergarria da Oso lasaia da	Musikaren proposamena ekartzen du. Gustokoa den ala ez adierazten du

Denon artean entzun eta bat aukeratuko da. zozketa erabili daiteke musika aukeratzekok	Magiarako musika Fondorako musika	Ez zait gustatzen Beldulgarria da Interesgarria da Nik ... hau proposatzen dut Guk abesti, musika hau proposatzen dugu	
Entzumena eta ulermena Magia saioa Ikasbil Entzun eta ariketak egin. Elkarrizketa entzun eta galderei erantzun.	Entzumena ulermena		Laguntzarekin oinarritzko informazioa jaso du.
Apainketa	txapela barita		
2. jarduera multzoa: EMANALDIRAKO KARTELAK EGIN			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
• Emanaldirako gonbiteak egin • Ikastetxean kartelak jarri	Power Point Canva	Kartel baten egitura/ estruktura erakutsi	Txartelaren atalak identifikatzen ditu

• Aretoan bada; zuzendaritzakoei baimena eskatu (formala, ez formala) • Emailak edo eskutitzak egin proposamena luzatuz Egitarauaren egitura aztertu: norentzat Diseinua Koloreak Informazioa: zer, noiz, ordua... Txartel ezberdinak konparatu: zer itxura Antolaketa Informazioa	Kartel bat nola egin canvan Egitaraua Erandio-magikoa GenEroa Magia-festa	Txartelen konparazioa: kolorea du Hemen argazkiak daude, bestean ez dago Hemen tokia dago	
Orduak errepasatzen	Orduak Jonen Etxekolanak	laurak eta bost lau terdiak hamar gutxiago laurden gutxiago	Orduak bereizten ditu Orduak esaten ditu
Txarteletan orduak, noiztik noiz arte agertzen da. Kontzeptua errepasatuko da. HORretarako eskolako edo eusle gelako ordutegiarekin ahoz jolastuko da. Irakurketa.	Irakurketa Noiztik-noiz arte	lauretatik 8ak arte Non	Orduak ondo interpretatzen eta adierazten ditu

Irakurket ariketa moduan plantetau daiteke. Testotik informazioa ateratzea. Eredu bat eskaintzen da eta ahoz egiteko behar diren galderak. Ulermena lantzeko baliagarria da			
Nola egingo dugu? Aurrez aurre, era digitalean, youtuberren bidez landuko dugu Taldeka jarri eta bakoitzak bere iritzia edo proposamena emango du eta besteei azaldu. Nola egin fitxan ereduak agertzen dira. Horko bat edo besteren bat esan dezakete. Beste kideak onartu edo ez egingo dute	nola egin	proposamena Guk aurrez aurre nahi dugu egin Guri grabazioa gustatzen zaigu. Gu ez gaude ados/ gu ados gaude ondo da/ onartzen dugu	Proposamena adierazten du
3 . SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: SOZIALIZAZIOA /EBALUAZIOA			
- Ikaskuntzaren KARPETA ETA EGUNKARIAREN EBALUAZIOA (PORTFOLIO MAGIKOA) - Zer eduki behar du ikasteko karpetak edo PORTFOLIOAK?	Egindako PORTFOLIOAK	Hau nire porfolioa Hau egin dut Hau ikasi dut Ariketa hauek zailak egin zaizkit. Erreza egin zait	PORTFOLIOAREN EBALUAZIO TXANTILLOIA

- Ezer baino lehen karpeta sortu beharko duzu. Hemen irudimena leherrarazi ahal izango duzu eta karpeta bakar eta pertsonal bat sortu. - Azala: identifikazio-datu guztiekin: izen-abizenak, proiektuaren izenburua, ikastetxearen izena, lan egindako datak. - Aurkezpen pertsonala: nor zaren, zein musika jarriko duzun, ze magia, ilusio... egingo duzun - Ikaskuntza-ebidentziak: jardueretan zehar... -zure ebaluazio nota...botazioak egin eta argudiatu...		Hauek ez dakit egiten Ikasi du Magia egitea —zait	
Auto-koebaluazioa Emanaldiaren, bere azalpenaren ebaluazioa	Ko-autoebaluazioa		Sekuentziaren ebaluazioa

Material osagarria

Abestia Rap: TRakamatraka

[TRAKAMATRAKA \(VIDEOCLIP\) LA BASU FEAT ANEGURIA DJ - Bing video](#)

Bideoa ikusi zati bat. Kainuetan erreparatu. lehen zatia letrarena irakurri eta keinuekin identifikatu. Antzeztu, abestu keinuak imitatuz.

Euskaraz bizi nahi, Esne Beltza

[Nahi dut \(Esne beltza\) - Bing video](#)

Kolore-kolore abestia

Bideoa ikusi magiarekin lotua: <https://www.youtube.com/watch?v=nKRr-yAC9J4>

Abestia ikasi : [Kolore kolore \(Mixel Ducau&Zaldibobo\) - Bing video](#)

Magia ala zientzia? Esperimentuak

<https://sites.google.com/itxaropenaikastola.eus/hh-itxaropena-ikastola/baliabideak/esperimentuak>

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/sanfranzientzia/sarrera/materia>

Logika ariketak

<https://www.matific.com/es/eu/home/maths-activities/episode/non-da-festa-ezabatzeko-prozesua-erabili/>

Ezetzta lantzeko

DBHkoentzat logika eta ahozkoa taldeka

https://www.mathplayground.com/logic_parking_lot.html

Irudien magia- Argazkilaritza

Argazkien irakurketa: kolorea, argitasuna, zer sentitzen dugu ikustean? Gustua... Gero argazkiak manipulatatu zerbait trnasmititzeko. DBHko arlo artistikoko irakasleekin batera lan egin.

Erakusketa argazkiena egin.

<http://plastikatzailleak.blogspot.com/2020/11/antzeko-irudien-animazioa.html>

Hiztegia lantzeko

<https://berbaxerka.gitlab.io/>

DEklinabidea lantzeko

<https://deklinabidea.ikaeuskaltegiak.eus/>

Aditzak errepasatzeko

<https://www.aditzak.eus/>

<https://www.youtube.com/watch?v=Q-T6NI3pLSk> Aditzak ikasteko rap abestia